

B

BARREN

TOKIKOM

Dislexia, ama baten begietatik

‘Dificultades de aprendizaje’
liburua idatzi du
Amagoia Zabalak



ELGOIBAR
SAN FRANCISCO

Azken etxebizitzak
%4ko BEZarekin

Etxebizitzak
trastelekuarekin

150.000 €-tik aurrera
+ BEZ

Bukatutako eraikina
Sukalde ekipatua

Orain BAI!



Informa zaitez konpromisorik gabe

943 74 44 67



C/ San Francisco 51, bajo.
Elgoibar



Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

www.sukia.com

Eskola publikoaren alde

Urteak joan, urteak etorri... jendearen joan-etorriak. Batzuk irten, beste batzuk sartu. Juanjo (Txutxo), Ibarzabal, Jon, Amaia, Mariapi, Andrea... Eskerrik asko guztioi!

Orain geure txanda da. Ni izendatu naute taldeko lehendakari, Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteko lehendakari; hau da erronka!

Talde bikaina osatzen dugu, anitza, pentsaera ezberdinekoak, baina helburu bat bera dugu guztiok. Ilusioz beterik, lan egiteko irrikaz gaude.

Gure seme-alaben hezkuntzaren alde, gure eskolako familien alde, eskola euskaldun baten alde, eskola anizkoitz eta aberats baten alde, geurea, herrikoa, denona den eskolaren alde, Euskal Eskola Publikoaren alde!

Eginkizun asko ditugu, bai, baina lehenengoa zuoi guztioi sekretutxo bat kontatzea da: guk altxor baliosu bat ezagutzen dugu. Ohartu ez arren, Elgoibar herriak bere baitan duen altxor bat. Urteak pasa ahala, balio handiagoa hartzen ari den altxor bat.

Eguneroko bizitzan present izan behar ditugun baloreak (besteekiko errespetua, denontzako aukera berdinak, euskararen garrantzia...) bultzatzen dituen altxorra.

Euskara eta euskal kultura maite dituen altxor distiratsu bat. Hura osatzen dugun guztiak baloratu eta maite gaituen altxor bat.

Altxor honek badu izen bat, noski. Izen aproposa, izan ere. Herri Eskola da altxorra!



Nerea Gorostiza,
Kalamua guraso
elkarteko lehendakaria

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Gure eskola ezagutzen ez den altxorra da. Gure helburuetako bat herritarrak altxor horren balioaz jabetzea da"

6

URTE BETE DITUGU HARPIDETU ZAITEZ!

www.elgoiBARREN.net

Egin klik eta ikusiko duzu

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



ELGOIBARKO LEKIA



MENDAKO UDALA



AKE ARCO



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

I-26 Greba Orokorra, eta gero zer?

Irailaren 26ko grebaren helburuetako bat Madrilen onartutako erreformak eta murrizketak Euskal Herrian ez aplikatzeko eskatzea izan zen. Bertan, herri honetako gehiengo sindikal eta eragile sozialek bultzatuta, eta zenbait sektore politiko eta hainbat herritarrek babestutako greba eta mobilizazioetan, ozen aldarrikatu zen beste eredu sozial eta ekonomiko baten beharrean gaudela, eta ezin dela onartu diru publiko- ez 100.000 mila euro bankuei oparitu, eta herritarrek murrizketak, zerga igoerak, pribatizazioak edota soldata jaitsierak jasatea.

LABek egiten dituen aldarrikapenak oso argiak dira: bankari diru gehiago ez ematea, euskal instituzioek murrizketak ez aplikatzea, politika publikoetan errotiko aldaketa, eta behingoz, euskal instituzioak gizartearen zerbitzura jartzea.

Aldarrikapen hauek beharrezkoak dira inposatzen ari diren neurriak ekiditeko. Neurri horien inposaketa dekretuz eta oinarriko lege bidez egiten ari da estatu espainola, eredu autonomikoa bukatutzat emateko. Aukera argia da, menpekotasunetik eta krisitik ez ateratzearen alde egin duen estatua edo irteera propioa egiteko, hau da, gure esparruan politikak egiteko erabakiak hartzearen hautuaren aldeko apustua. Alternatiba egon badago, eta posible da, baldin eta ondorengo erabaki hauek hartzen badira:

1. Gobernu espainolaren erabakiak ez aplikatzea.
2. Euskal Herriko instituzioetan aurrekontuetan ezarritako murrizketak bertan behera uztea.
3. Krisitik ateratzea ahalbideratuko diguten politikak egiteko plan instituzional integrala mahainatzea.

Euskal Herriak hitza eta erabakia behar ditu, 'derrigorrezkoa delako aplikatzen dut' esatetik 'ezin dut aplikatu, Euskal Herriko gizarteak baztertu egin duelako' esatera pasatu behar dugulako. Hemen badago masa sozial nahikoa beste bide bat egiteko, krisiari benetako alternatiba bat eraikitzeko. Falta dena hau gauzatzeko prest egongo diren gobernua dira, eta hau soilik gertatuko da baldintzatzeko gai izango den gehiengo soziala baldin badago. Guztion artean lortu dezakegu, ekin alternatibari!

LAB ©

Hurbildu aukera

Hamarkadetan luzatu den gatazkari konponbide justu bat eman eta denon artean bakea eraikitzeko aukera berriak zabaldu dira Euskal Herrian. Bide honetan bat egin dute azken hila-beteotan erakunde eta kolektibo ugari gure herrian, eta helburu honetan aurrera egiteko bide-lagun ditugu nazioarteko pertsona eta eragile ugari ere. Gatazkaren oinarriak eta ondorioak konponduko dituen bidea da denon artean egin nahi duguna. Munduko beste hainbat herrialde-tan bezala, gurean ere beharrezkoa izango da preso eta ihesean diren herritarren afera konpontzea. Espainiar eta frantziar espetxeetan dauden euskal preso politikoen giza eskubideak errespetatzea berehala hartu beharreko neurria dela pentsatzen dugu. Bai, iritsi zaigu garaia, Euskal Herriko hiritar orori, izan jatorri, ideia politiko edo erlijioso desberdinetako, bakearen eraikitzaile izateko; hau da, Euskal Herrian bakea izan dadin sortzen ari den dinamika herrikoia aktore zuzenak izateko.

Hau dela eta, azaroaren 10ean Baionako kaleetan manifestatzera dei egiten dugu, ondorengo lemapean: *Euskal Presoak Euskal Herrira dagozkien eskubideen jabe*.

Autobusa egongo da King-Kongeko zubitik 13:15etan.

Herrira, herri mugimendua ©

OKERRAK ZUZENTZEN

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen emaitzetan, 9B mahaia Altzolako emaitzei gehitu genien, baina Kultur Etxeko mahaia zen. Beraz, hauek dira Kultur Etxeko eta Altzolako datu zuzenak:

- **ALTZOLA:** errolda 217, balio gabek 1, zuriak 1 eta abstentzioa 81. Botoak: EHBildu 69, EAJ-PNV 37, PSE-EE 13, IU/LV 6, EB-B 0, PP 6 eta besteak 3.

- **KULTUR ETXEA:** errolda 3520, balio gabek 17, zuriak 28 eta abstentzioa 1114. Botoak: EHBildu 791, EAJ-PNV 1013, PSE-EE 312, PP 138, IU/LV 41, EB-B 22, eta besteak 44.



Iñigo
Lazkano

leupa, Don Angel. Hamen nabil Internet-en buzeatzen, gai interesante baten billa zutabe hau b e t e t z e k o eta...puuff... desgraziak besterik ez daude barren!

Batzuek motibo potoluak dakez, eta beste batzuek ostera, problemia ez dagan lekuan diskusiua sortzeko abildade ga-

lanta daukela konturatzen ari naiz. Bestela erreparau Donostiako "boda" hori. Zela izan zan benetan ez degu sekula jakingo, eta gaiñera periodikuek ez debe asko lagunduko hortan. Izan ere, gaur egun edozein sartzen da kazetari eta... Benetako problemak ere badaude, baiña, gure inguruan, urrutira jua gabe gaiñera! Danok ezagutzen degu motibo sendoren batengaitik gaizki pasatzen ari dan jendia. Ekonomikuak edo bestelakuak eta jende hórrek arduratzen nau.



Angel
Bazterretxea

Iñigo, oraingo azken sasoi honetan zuk esandako kasu negargarriak ugaritzen dihoaz. Horretaz gainera, azken zoritxarra Atlantikoaren beste aldean, iparraldean, gertatu da: sekulako zikloiak aztindu ditu Karibe eta Iparameriketako bazter batzuk. NewYork bera ere ondo jota gelditu da. Hainbeste etxe suntsituta, beste milaka pertsona noraezean, argirik gabe eta horrelako kalamitate ugaritan sartuak. New York, gure planeta honetako herririk handienetako eta aurreratuenetakoa. Beno, hiri bat da. Eta herri handi eta moderno horretan horrelako kalteak sortu baldin baditu haize sakar eta izugarri horrek, zelakoak egin ote ditu aurrez zapaldu zituen beste herri eta paraje pobreetan. Adibidez: Haiti, Kuba eta hor inguruko beste hainbat herrialdetan. Zuk aipatzen duzun une gogor hau, hainbat eta hainbat kalamidatez bete, benetan kezagarria zaigu guztioi.

“Ez dakit gure inguruan ez ote den desgrazia zoriona baino ugariagoa”

Eta aipatu dugun kalamitate hori, gogorra izanda ere batez ere herri pobreenzat, ez al daukagu beste kalamitate gogorragoagoa lan ezaren arazo larri honekin? Ez dira momentu atsegiñak hainbeste familia eta pertsonentzat. Ez dakit gure inguruan desgrazia ugariagoa den zoriona baino, baina badaukagu zertaz benetan kezkatu. Izan ere, geure ingurura arte iritsi baita langabeziaren presentzia larri hori. Donostiako ezkontza bateko gertakizuna aipatzen duzu. Nola izan zen bene-benetan ez dakigu. Baina, politikari lotutako zerbait izan zela ulertu dut. Horrelako gauzak askotan gertatzen dira gure artean. Zenbat aldiz esaten da lagun arteko bazkari edo festaren bat izaten dugunean, jan aurretik: “Debekatuta dago politikari buruz hitz egitea”. Ez dakit hori zergaitik den. Ez al dakigu geure gauzak behar bezala tratatzen? Aspaldi pasatu ziren horrelako denborak. Guri ere seminarioan esaten ziguten, ezin zela Politikaz hitz egin, bestela kanporatuak izango ginelako. Baina, orain, politikaren inguruko hainbat eta hainbat artikulu irakurtzen ditugu egunkarietan. Hala ere, oraindik lan handia egin behar dugu elkarrekin bizitzeko. Beno ba, aurrera eta frente egin beharra dago gaurkoari. Ez gera galduko, ala bai?

“Aurrera egin behar da. Bizitzan gauza gutxi daude arreglorik gabekuak”

Aspaldixan gero eta sarrixago ari gera entzuten desauziuen gaixa. Azkena entzun detena Bizkaiko familia batena izan da. Kamioneruak ziran eta igual horregaitik ikututa laga nau. Zortzi kamioi eta bi etxe zauken krisi hasieran, oiñ ostera, dana galdu debe eta postre bezela 200.000 €-ko zorra geratu jakue bankuekin. Panorama honekin, bihar ez danen bat egitteko boleto danak zakezela komentau zoan andriak TV-an baiña, 2bi ume txiki zakezela eta aurrera tira bihar zala. Hori dek arrazoi! Erten zitzaidan, egixa da-eta. Bizitza honetan oso-oso gauza gutxi daude arreglorik gabekuak: heriotza, soluziorik gabeko gaixotasun bat... (hau amama Pepitak erakutsi zian). Beste dana, denbora gehixago edo gutxiagorekin, atzera berriz ere bere lekura bueltatu laike, nahiz eta hasieran ezinezkoa ematen doan. Baiña klaro, hortako bittarteko danak ipiñi bihar dira martxan, ezin da egon bakarrik arreglako dianaren zain.

ESKERTZA

TERESA GABILONDO IRIONDO

2012ko urriaren 27an hil zen, 84 urte zituela.

*“Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen goxoa ezerk ez du lausotuko”*

Zure lagunak



%3,4 igoko dituzte Elgoibarko Udal Tasak 2013rako, iraileko KPlaren indizean oinarrituta

KPlari BEZaren igoera gehituko diote BEZa aplikatzen zaien zerbitzuei

2013ko tasak %3,4 igotzea erabaki du Elgoibarko Udaleko udalbatzaren osoko bilkurak, iraileko KPI indizean oinarrituta. Hala ere, tasa batzuetan salbuespenak egingo dituzte: zaborren kasuan esaterako, Elgoibarko Udalak bosgarren kontenedorearen aldeko apustua egin du. Hortaz, hondakin organikoak birziklatzeko izena eman duten herritarrei ez diete datorren urtean zaborraren gaineko zerga igoko. Aurrerantzean bosgarren kontenedorearen erabilera "zehatzago" kontrolatzeko neurriak hartuko dituztela azaldu du alkateak, eta horren arabera hobariak emateko ahalegina egingo dutela aurreratu du. Horri lotuta, gutxien erabiltzen diren zabor edukiontzia kendu egingo dituzte azarotik aurrera, "kostuak murrizteko".

BEZa jasaten duten zerbitzuetan KPlaren igoerari BEZaren igoera gehituko diote. Kultur ikuskizunei eta Kirol Patronatuko kuotei eragiten die horrek, besteak beste.

Ibilgailuen zergari dagokionean, auto elektrikoek udal zergan zuten %75eko hobaria %95era igoko dute, eta 25 urtetik gorako autoen gaineko zergak %50eko hobaria izango du (orain arte ez zuten zergarik ordaintzen).

Aipatzekoa da baita ere Elgoibarko Udalak ez duela indarrean

jarriko etxebizitza hutsen gaineko zigorrak 2013an. EAJren iritziz, etxebizitza hutsak zein diren jakiteko irizpideak ez dira argiak eta Foru Aldundiak irizpide horiek ondo zehaztu arte, ez dituztela aplikatu azaldu zuen Etxeberriak.

Bilkura bertan behera

Alfredo Etxeberriak bertan behera laga zuen bilkura, gai ordenako azken puntua eztabaidatzen ari zirenean, Joseba Elustondo Bilduko zinegotzia Twitter sare sozialaren bidez batzarraren berri zabaltzen ari zelakoan. Aurrez, aretoan zegoen ikusle bati kargua hartua zion arrazoi berarengatik. Pleno aretoan sare sozialak erabiltzearen gaineko araudirik ez dagoela arrazoitu zuen Etxeberriak, eta Udal idazkariak gai horren inguruko txostena egin arte atzeratu zuen batzarra. Bilduk eta PPK alkatearen jarrera salatu dute.



2013an zergak %3,7 igotzea onartu du Mendaroko Udalbatzaren osoko bilkurak

Datorren urterako zergak %3,7 igotzea erabaki zuen martitzenean Mendaroko Udalbatzaren osoko bilkurak. Urtebeteko inflazioa hartu dute kontuan horretarako, baina abuztutik abuztura artekoa barik abuztutik irailera artekoa, "irailean BEZa igo zuelako Espainiako Gobernuak". Onartutako aldaketa handiena, baina, zaborraren zergaren kudeaketaren ingurukoa da. Mankomunitateak %4,58 igo du zaborraren gaineko zerga, baina igoera %3,7ko igoera aplikatzea onartu du Udalak, horretarako gastu administratiiboak murriztuta. Hau da, orain arte, zerga hori urtean lau zatitan kobratzen zitzaizen herritarrei, baina gastu administratiiboak erdira ekartzeko, datorren urtean lau zatitan barik birritan kobratuko zaie.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga

Ohiko bizilekuak ez diren etxebizitzaren kasuan, berriz, Udalak OHZ Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga %10 errekaratuko du. Uztailen, udalei OHZ Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga errekaratzeko aukera emango dien foru araua onartu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusiek. PSE-EEren babesari esker atera zen aurrera Bilduren gobernuaren ekimena. Horrek aukera ematen die udalei ohiko etxebizitzak ez diren OHZri %150eko errekaratzea ezartzeko. Salbuespen batzuk ere ezartzen ditu arau horrek, baina Mendaroko Udalak erabaki du, Mendaron errekaratzea "sinbolikoa" izatea, "azken batean oso gutxi direlako bigarren etxebizitza gisa erabiltzen diren etxebizitzak.

Pilarreko zahar etxea eztabaidagai Batzar Nagusietan

Ander Rodriguez Gipuzkoako Gizarte Politikako diputatuak agerraldia egin zuen Batzar Nagusietan, PPK eskatuta, bere departamentuaren arduraren dauden proiektuen berri emateko. Agerraldi horretan, Elgoibarren, Irunen eta Usurbilen eraiki nahi dituzten zahar etxeei buruzko galdera bat egin zioten EAJ eta PSE alderdietako ordezkariak Rodriguezi. Zahar etxeak eraikitzeko 100.000 euro daudela esleituta gogoratu zuten jeltzaleek eta sozialistek, baina horiek eraikitzeko pausorik ez ematea egotzi zioten Aldundiari. Rodriguezek erantzun zuen aurtengo aurrekontuan jasota dauden 100.000 euroko partidarekin "ezinezkoa" dela zahar etxeak eraikitzen hastea. Eider Mendozak EAJko bozeramaileak aurrelanean egiteko aukera badagoela adierazi zuen, eta Elgoibarko Udalak 2012ko aurrekontuetan 200.000 euroko partida aurreikusitakoan Pilar ikastetxearen eraikina bota eta orubea prestatzeko. Foru Aldundiak diru kopuru horren erdia jarriko zuela agindu zuen.

Ekimena **Pintxo-poteo erotikoa**

Elgoibarko hamar tabernak pintxo-poteo erotikoa antolatu dute. Vinos divertidos arandegiaren laguntzaz, ardoa edatea ez dela soilik helduen kontua sustatu nahi dute antolatzaileek, eta ardoa probatuz gazteek ere ondo pasatu dezaketela aldarrikatu nahi dute. Taberna bakoitzak bere pintxoa sortu beharko du, eta norberak nahi duen osagaiekin pintxo "pikantea" osatuko dute. Pintxoari laguntzeko Cojón de gato ardo beltza edo Chardonnay Ixeia ardo zuria egongo dira aukeran. Ondorengo tabernek hartuko dute parte: Gabi, Orbea, King-Kong, Maren, Viento Sur, Gran Siglo, Txarriduna, Maala, Pilon eta La Perla. Pintxoak eta ardoak 2,50 euro balioko ditu. Pintxo dastaketa azaroaren 22tik 24ra izango da, 19:00etatik aurrera.

Berbia **Ibai lagun**

Deba ibaia garbituko dute bihar auzolanean, Debegesaren *Ibai Lagun* egitasmoaren barruan. Urriaren 20an egitekoa zuten ekimena, baina eguraldiaren ondorioz atzeratu egin zuten. Hortaz, ibaia garbitzeko lan-saioa larunbatean egingo dute, azaroaren 10ean, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera. 10:00etan elkartuko dira boluntarioak plazan. Arropa eroso eta zapata egokiak eramatea gomendatu dute. Garbiketarako beharrezko diren eskularruak, zabor-poltsak, guraizeak... Debegesako kideek eramango dituzte. Ondoren, 12:30ak aldera, mokadutxo bat eskainiko diete parte-hartzaile guztiei. Izena emateko 943 820 110 telefonora deitu behar da. Elgoibarko Udalak, Debegesa Garapen Agentziak, Morkaiko Mendizale Elkartek eta Gazte Asanbladak antolatu dute ekimena, Uraren Euskal Agentziaren laguntzarekin.

Irudia **Sei enborreko onddoa**

Sei enbor eta bost txapeleko onddoa aurkitu du Julian Asensiok, eta bere arreba Ameliari oparitu dio. Ez men da sarri joaten perretxikotara, baina aurtien pieza bitxia aurkitu du Julianek. Pozik hartu du nebaren oparia, eta afari ederra egingo duela azaldu du.



Gurasoentzako sorospen ikastaroa

3 eta 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako sorospen ikastaroa antolatu du Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak, Gurutze Gorrriaren laguntzarekin. Seme-alabentzako ohitura osasungarriak sustatzea nahi dute, eta era berean, gurasoen arteko hausnarketak egingo dituzte. Azaroaren 20an, 22an, 27an eta 29an eskainiko dituzte saioak. Interesatuak azaroaren 16ra arteko epea dute izena emateko, ondorengo helbide elektronikora idatzita: kalamua@google-groups.com.

Zaharren egoitzetan aldi baterako egonaldiak

Zaharren egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko programa abiatu du Foru Aldundiak, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea: abenduko lehen hamabostaldirako eskabideak azaroaren 16rako egin behar dira, eta bigarren hamabostalditik aurrerako eskabideak azaroaren 26rako. Informazio gehiagorako Ongizate Sailera (943 741 050) deitu daiteke.

Urriko azken zapatuko ferriako zozketa

Urriko azken zapatuko ferrian urdaiazpiko bat zozketatu zuten Kalamua guraso elkarteak, eta 2959 izan da zenbaki saritua. (Ordezkoa, 0799). Irabazleak 607 584 011 telefonora deitu behar du saria jasotzeko.

Elkartasun zozketa egin dute

Gernikako urriko azken asteleheneko ferrian egin zuten elkartasun zozketa, eta hauek dira zenbaki saridunak: 1. saria (furgoneta): 90.067 (ordezkoa, 101.994). 2. saria (tableta): 41.846 (ordezkoa, 55.888).

AMAGOIA ZABALA

‘DIFICULTADES DE APRENDIZAJE’ LIBURUAREN IDAZLEA

“Semeari laguntzea obsesio bihurtu zen niretzat”



Dislexia duen semea dauka Amagoia Zabala mendaroarrak. Irakurketaren eta idazketaren ikaste-prozesuari eragiten dion trastorno edo nahasmendua da dislexia, eta horrek beste hainbat gabezia ere eragiten ditu: besteak beste, psikomotrizitate eta lateralitate arazoak, espazioan kokatzeko zailtasunak, epe motzeko memoriaren murrizketa... Amagoia Zabalaren semeak umetatik izan ditu ikasteko zailtasunak, baina orain dela bi urte inguru diagnostikatu zioten dislexia. Ordura arte bizitakoa jaso du Zabalak *Dificultades de aprendizaje* liburuan. Bizipenetan oinarritutako liburua da, eta ama-semeek ikusi eta sentitutakoa jasotzen du, eta baita amak semearekin lan egiteko erabili dituen tekniken berri ere. Euren antzeko kasuan egon daitezkeen familiei laguntzeko asmoz idatzi du Zabalak, eta datorren azaroaren 16an aurkeztuko du Mendaroko udaletxean, 18:30ean.

Zer dela eta erabaki zenuen dislexiari buruzko liburua idaztea?

12 urteko semea daukat dislexiarekin. Orain dela pare bat urte diagnostikatu zioten dislexia, 10 urte zituenean, (LHko 5. mailako lehen ebaluaketan) eta orduan erabaki nuen liburua idaztea. Umeak zer zeukan jakin nuenean, barneko sentimenduak husteko beharra sentitu nuen, eta idazten hasi nintzen. Nire bizipen guztiak jaso ditut liburuan. Ama baten ikuspuntutik idatzi dut dena, nire egoeran edo antzerakoan daudenei lagungarri egingo zaielakoan. Semeari dislexia diagnostikatu zioten artekoa jaso dut. Momentu

horretan txanpan botila bat sentitu nintzen, eta kortxoa kendu eta barruan neukan guztia kanporatu nahi izan nuen.

Dislexia zela jakin arte, zer igartzen zenion semeari?

Haur Hezkuntzan zebilela irakasle batek esan zidan ez zuela ikasitakoa barneratzen. Adibidez, gelakideen izenak bakoitzarekin lotzeko ariketa egiten zutenean, gelako guztiek identifikatzen zituzten lagunak, eta nire semea ez zen horretarako gai. Arraroa egiten zitzaidan, nik ez niolako etxean ezer berezirik igartzen. Konturatzen nintzen eskolara urduri joaten zela, gauzez hitz egiten zuela ametsetan eta tentsio handia jasaten zuela, baina bere izaera horrelakoa zela pentsatzen genuen. Gainera, 2 urte zituela, bikiak izan nituen eta jarrera horren arrazoa jeloskorkeria izan zitekeela ere pentsatu genuen, baina irakaslearekin hitz egin nuenean, semeari lagundu egin behar niola erabaki nuen.

“Gure semeak oso ondo marrazten du eta alor horretan oso heldua ikusten nuen”

Nola laguntzen zenion?

Ni hezitzailea naiz, eta eskoletan asko ibiltzen naizenez, han eta hemen ikusten nituen metodoak aplikatzen hasi nintzen semearekin. Fonema bat hartu eta irudiekin lotzen nuen, (adibidez; ‘X’ fonema, guraize bihurtu nuen) berak fonema bakoitza irudiekin identifikatzeko. Hobera egiten zuela ikusten nuen, baina Lehen Hezkuntzako lehenengo mailara iritsi zenean, arazoak hor jarraitzen zuela ikusi zuten. Irakasleek esaten ziguten gainerako ikasleekin alderatuta, gurea atzetik zebilela. Berritzegunekoek frogatzen zuten zioten eskolan bertan, eta, entzumen eta ikusmen pertzepzioak ukituta zituela esan ziguten, baina ez ziguten dislexia konturik aipatu. Adimen-kozientea normala zeukala esan ziguten, baina ikasteko beti laguntza behar izango zuela aipatu ziguten. Eta halaxe izan zen. Idazten eta irakurtzen ikastea beste ikasleei baino gehiago kostatu zitzaion, eta matema-

tikekin zailtasun handiak zituen. Matematikak ulertzeko garbantzuekin jartzen nizkion adibideak, bisualki uler zezan, eta poliki izan arren, ulertarazten nion. Etxean lan pila bat egiten genuen, baina aurrerapausoak oso txikiak ziren. Curriculumeko gutxiengoetara iristeko sekulako lana egin behar genuen, eta horrek zer pentsatua ematen zidan.

Entzumen eta ikusmen pertzepzioak ukituta zituela jakin zenuenean, horri buruz ikertzen hasi zinen?

Bai. Interneten informazio bila hasi nintzen, eta gabezia horiek dislexiarekin lotuta zeudela agertu zitzaidan. Ume horiek ikasteko zailtasunak dituztela jartzen zuten, letrekin arazok izaten dituztela... Sintoma asko aipatzen ziren, eta horietako asmo identifikatu nituen semearengan. Adibidez, ‘b’ eta ‘d’ letrak, edo ‘c’ eta ‘f’ ez zituen bereizten, ez zekien hitzak non moztu behar ziren, edo ‘txakurra’ esan beharrean ‘katxurra’ esaten zuten. Hasieran ez nion garrantziarik ematen, baina gerora konturatu nintzen horiek guztiak dislexiaren indikadoreak zirela. Dislexiak kasu batzuetan psikomotrizitateari ere eragiten diola jartzen zuten (Disprasia), eta, nire semeari izugarri kostatu zitzaion, adibidez, bizikletan ibiltzea edota oinetakoetako lokarriak lotzen ikastea, adibidez. Era berean, guraizeekin marrazki bat marra gainetik mozteko ere zailtasunak zituen. Espazioan kokatzea ere oso zaila egiten zaie, eta konturatzen nintzen nire semeak askotan ez zekiela zein egunetan bizi ginen ere. Ondorioz, eskolako agenda hutarik ekartzen zuten, ez zekiela zein egunetan idatzi behar zuten, zein egunetan bizi zuten...

Dislexia izan zitekeela pentsatzen hasi zinen...

Dislexia duten ume askok sormena oso garatuta izaten dutela jartzen zuten Interneten, eta, bai, nire semea oso ona da marrazten. 6 urterekin oso ondo marrazten zuten, eta alor horretan oso heldua ikusten nuen. Lan pila egiten genuen, baina eskolan aurrera egin ahala, materia konplikatua gora lantzen zuten, eta lehenengo suspentsioa matematiketan jaso zuten, laugarren mailan. Biderketa taulak serieak dira, eta ezin zituen ikasi. Truku pila bat erakusten nizkion gauzak barneratzeko: abestiak, jolasak, marrazkiak... denetik egiten genuen, eta asteburu eta oporrak lanerako erabiltzen genituen, baina, hala ere, ez zen gutxiengoetara iristen. Txosten guztietan

jartzen ziguten ume maitakorra zela, balore onak zituela, lagunaren laguna zela, baina autoestimua oso baxua zuela, despistatu egiten zela, Kirolean ere eragiten zion. Zailtasunak zituen futbolekin jokatzeko ere, eta jakina, adin horretan denek futbolari izan nahi dute. Ikasketetan eta futbolekin txarra zenez, autoestimua oso baxu zeukan. Hala ere, nik bultzada ematen nion, eta ordu pila bat sartzen nituen berarekin etxeko lanak egiten. Nire lana ere moldatzen nuen semea eskolatik irteten zenean libre egoteko, berarekin egin behar nituelako etxeko lanak. Semeari laguntzea obsesio bilakatu zen niretzat.

“Curriculumeko gutxiengoetara iristeko sekulako lana egiten genuen”

Noiz konturatu zinen Berritzegunekoek esandakoa baino zerbait gehiago zeukala semeak?

Betidanik uste izan nuen hori, ez zelako normala hainbeste lan egin eta emaitza hain kaskarrak edukitzea. 5. mailan Historia ikasten hasi ziren, eta Erromatarren garaia ikastea tokatu zitzaionean ‘Konstantinopla’ hitza ezin zuten esan. Trabatatu egiten zen behin eta berriro, eta ez zitzaion ateratzen. Bere gelan lurrean botata aurkitu nuen, buruari kolpeka tontoa zela esanez, eta orduan erabaki nuen eskolatik jasotzen nituen informazioa edo balorazioak kontrastatu egin behar nituela eta laguntza behar genuela. Semea ez zegoen ondo, eta ni ere ez. Eibarko zentro pribatu batera joan nintzen, eta proba pila bat egin ondoren, dislexia, disgrafia eta diskalkulia zituela esan ziguten, hau da, idazteko, irakurtzeko eta kalkulorako zailtasunak zituela, alegia. Hiru alorretan zituen ukituta, baina diskalkulia nabarmentzen zen besteen gainetik. Jakina, nik letren alorrean lan handia egin izan dut berarekin, eta alor hori landuagoa dauka matematikarena baino. Hala ere, irakurtzeko mekanika landu arren, ulermen zailtasun handiak ditu oraindik.

Nola hartu zenuen diagnosi hori?

Lasaitasun handia hartu nuen. Behin arazoa zein zen jakinda, hori konpontzeko tratamendu bat egongo zela pentsatu nuen, eta horrek lasaitu egin ninduen. Baina dislexia ez da gaixotasun bat eta ez dago hori sendatzeko sendagairik. Egin ditugu tratamenduak, eta hobetu dugu, baina arazoa beti egongo da hor. Bary metodoari esker, fonemak entzuteko modua landu genuen. Fonema batzuk oso ozen entzuten zituen, eta beste batzuk oso baxu, eta hori berdintzen lagundu zioten. Enfokea ere landu genuen, adibidez irakasleak arbelean idazten duena hobeto enfokatzeko hasieratik. Psikomotrizitatea eta lateralitatea hobetzeko ariketak egin genituen, burmuin gimnasia ere (Brain Gym) eta horri esker umeak autoestimuan asko irabazi duela igarri diot. Hasieran kognitiboki ez nion hobekuntza handiegirik ikusten, eta diagnostikoa beranduegi iritsi delakoan nago. Burmuina gazteagoa denean elastizitate handiagoa dauka eta hobeto landu daiteke.

Burmuinari eragiten dio, beraz, dislexiak...

Bai. Dislexikoek burmuineko ibilbideak ukitura izaten dituzte. Hau da, kanpotik etortzen zaien informazioa ez dute gainerakoek bezala kudeatzen, eta beste ibilbide batzuk erabiltzen dituzte. Adibidez, Elgoibartik Debara joateko logikoena trena hartu eta zuzenean joatea litzateke, baina dislexia dutenak Lasturretik edo Arnotik buelta egin ondoren iristen dira Debara. Ondorioz, askoz gehiago nekatzen dira, ahalegin handiagoa egiten dutelako eta atentzioa lehenago galtzen dute.. Beraien burua, nolabait esateko, itzali egiten da, besteena baino lehenago. Sarritan esaten da alferrak eta despistatuak direla eta ikasteko ez dutela balio. Seguru nago ikasteko balio ez dutela esaten dieten horien artean dislexiadun bat baino gehiago daudela.

Egunerokoan igarri diozu hobekuntzarik?

Bai, autoestima aldetik askoz hobeto dago, eta gainerakoan ere egin ditu aurrerapenak. Espazioan hobeto kokatzen da, eta orain badaki zein egunetan bizi garen. Ondorioz, eskolako agenda ondo betetzen du, eta epe laburreko memoria ere asko hobetu zaio. BCBL Basque Center on Cognition, Brain and Language zentrorra joan ginen, burmuinaren jokabidea aztertzeko, eta han esan ziguten diskalkulia arazoa gaindituta

daukala, edo behintzat azken fasean dagoela. Oinarria badauka, eta aurrera doa, baina besteak baino polikiago. Dislexiaren zama magatik, lasterketa batean ez da beste ikasleen parean iritsiko helmugara, baina iritsiko da.

Hezkuntza sistemak nola erantzuten die dislexia duten ikasleei?

Gaur egungo hezkuntza sistemaren oinarria irakurketa eta idazketa dira. Hortaz, bi alor horietan zailtasunak dituenak ikasteko zailtasunak izatea normala da. Horrez gain, ikasle hauek epe laburreko memoria kalte-tuta dute, eta ikasten dutena berehala ahazten zaie. Gaur egun dauden teknologiek, ikus-entzunezko metodologia gehiago erabili beharko lukete dislexiadun umeekin. Adibidez, Industri Iraultza liburutatik ikasi beharrean, film edo dokumentalen bidez ikastea egokiagoa izango litzateke, irakurtzeko zailtasunak direla-eta, ezin dutelako liburutetan jartzen duena ulertu. Eta ingelerarekin zer esanik ez! Ingelera oso hizkuntza zaila da ume hauentzat, hitzak ez direlako idazten diren moduan ahoskatzen. Oro har, hezkuntza sistema ez dago ikasle hauentzako prestatuta.

“Sarritan esaten da dislexiadunak alferrak edo despistatuak direla”

Dislexia duten ikasleak gainerakoak bezala ebaluatzen dituzte?

Ikasleak ahalmen kognitiboan arabera neurtzen dira oraindik, eta ume hauek ez daukate ezagutza horiek azalertzeko gaitasunik. Azterketak idatziz egiten dira, eta dislexia duen ikasle batek ezin du denbora berean beste ikasle batek idazten duena idatzi, ezta gutxiagorik ere! Akats ortografiko asko egiten dituzte, eta espresio zailtasun handiak dituzte. Jakintza eduki arren, ezin dute ondo azaldu. Ahozko azterketak egitea izan daiteke irtenbide bat, edo ikaslea ebaluatzeko bes-

te metodologia batzuk erabiltzea, baina gaur egun oraindik ere azterketak dira ebaluatzeko erabiltzen diren neurgailu nagusiak. Ebaluazio sisteman ikaslearen jarrerara eta ahaleginak balio handiagoa izan beharko luke.

LH amaitu du, eta orain Elgoibarko Institutoan dabil semea DBHn. Etapa berria, irakasle berriak... Nola ikusten duzu semea?

DBHko lehenengo mailan dago eta egin dioten aurre ebaluazio baten arabera, ez zaio asko falta gutxiengoetara iristeko. Agian minimo horiek bajatu egin beharko zaizkie horrelako ikasleei, baina curriculum-egokitzeko beste baldintza batzuk bete behar dira eta ez da horren erraza. Dena dela, tutorearekin hitz egin dut eta inpresio ona hartu dut. Hemendik aurrera ikasketa teknika berriak aplikatu behar ditugu, eta alor pedagogikoa landu. Burmuin-mapak erabiltzen dira eta bisualki barneratzen dituzte jakintzak. Horretan trebatuko naiz ni neu ere berari laguntzeko. Hala ere, neska bat hartu dugu berari etxeko lanetan laguntzeko. Konturatu ginen gure arteko harremana ez zela ama-semeen arteko ohiko harremana. Irakasle papera neukan eta bere ezinegon guztia nirekin kanporatzen zuen. Pertsona ezezagun batekin hobeto kontrolatzen du bere jarrera, eta hoberako izan delakoan nago.

Eta, etorkizunera begira, zer?

DBHko etapa gainditzeko zailtasunak izango ditu, baina hortik aurrera bere abilezietan trebatzeko aukera izango du. Alor batzuetan zailtasunak izan arren, beste gauza batzuetan oso onak dira ikasle hauek; benetan argiak dira. Einstein bera ere dislexikoa zen, eta Picasso ere bai. Gure semea oso ona da marrazten, eta DBH amaitzen duenean alor artistikoari helduko diogu. Hori gustatzen zaio, eta horretan oso ona da, gainera. Liburuko marrazkiak berak eginikoak dira. DBHko zubi hori pasatzea ez da erraza izango, baina lortuko dugu. Azterketa garaian sekulako lana izaten dugu: liburu-egintza grabatu egiten ditugu, eta horrela, irakurtzen doan bitartean entzun ere egiten du eta hobeto barneratzen du. Itxaropentsu nago.

Nafarroa arragoa!

Elgoibartarrok Nafarroa hobeto ezagutzeko ahalegina



Aurkezpen ekitaldian ateratako erretratua: Ane Beitia Elgoibarko Udaleko euskara zinegotzia, Amaia Txurruka kultura zinegotzia, Itsaso Alguacil Gazte Asanbladako kidea, Iñaki Agirre Ongarri zine-klubekoa, Imanol Larrañaga Elgoibarko Izarrako dinamizatzailea eta Aitor Zubiaurre Morkaikoko kidea.

Elkarlana izan da Nafarroa arragoa egitasmoaren berrikuntza eta aberastasuna. Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak, Morkaikok, Ongarrik eta Gazte Asanbladak elkarlanean antolatu dugu *Nafarroa arragoa* egitasmoa. Gotzon Garate idazle eta euskaltzale elgoibartarra 2008ko urrian hil zen, eta ordutik, urria elgoibartarrentzat

“berezia” izan dela azaldu zuen Imanol Larrañaga Elgoibarko Izarrako dinamizatzaileak aurkezpen ekitaldian. Azken urteotan hitzaldi zikloak eta bestelako ekitaldiak antolatu izan ditugu, Udalak eta Elgoibarko Izarrak Gotzon Garateren heriotzaren harira, baina aurten herriko beste eragile batzuekin jardun dugu elkarlanean. Nafarroara begira jarri gara

guztiok, elgoibartarrek Nafarroa hobeto ezagutzeko helburuarekin. 500 urte bete dira Gaztelak Nafarroa konkistatu zuetik, eta hori aitzaki hartuta antolatu ditugu Nafarroarekin zerikusia duten hainbat ekitaldi. Urrian hasi eta azaroan amaitu dira ekitaldiak, eta jende askok hartu du parte. Egitasmoaren erreposoa egin dugu gehigarri honetan.



Nafarroa, nahiaren eta ezinaren borroka-tokia

Nafarroaren konkista, 1512-1530 izan zen Joseba Asiron (Iruñea, 1962) historialari nafarrak eman zuten hitzaldiaren izenburua.

XIV-XV. mendeetan hasi zen Nafarroako Estatuaren desagertzea. XV. mendea oso mende latza izan zen Europarentzat, eta baita Nafarroarentzat ere. Horrek asko baldintzatu zuen Nafarroaren etorkizuna.

Ordura arte Hispania deitzen zitzaion Iberiar penintsulari, baina Gaztelak eta Aragoik bat egin zutenean, estatu bakarra osatu zuten eta horri Espainia deitzen hasi ziren. Lehen kontzeptu geografikoa zenak esanahi politikoa hartuko du gero. *“Ondorioz nik beti esaten dut Espainia izan zela Nafarroa konkistatu zuena, eta ez Gaztela”*, zehaztu zuen Asironnek.

Fernando Katolikoa izan zen sortu zen estatuko erregea, eta haren lehen helburua Nafarroa konkistatzea izan zen. Ia 200 urteko gatazken ondoren, 1494an Nafarroako Gerra Zibila amaitu zen, eta Joan III.a izendatu zuten nafarren errege. Nafarroan urak bere onera etorri zirene-

an, Fernando Katolikoak Nafarroa konkistatzeko ordua iritsi zela erabaki zuen. Hala, 1512ko uztailan, Nafarroa konkistatu zuen. Nafarrei leporatu izan zaie erresistentzia txikia jarri zutela, baina hori ez da egia.

Nafarroa Behereatik etorri zen Erresuma berreskuratzeko lehen ahalegina, eta herritarrak alde zituztela aprobetxatuta, Iruñea inguratzea ere lortu zuten. Baina Albako dukearen tropak nagusitu egin ziren.

1516an izan zen Nafarroaren askatasuna berreskuratzeko bigarren ahalegina, Fernando Katolikoa hil zela aprobetxatuta. Pedro Nafarroako mariskala buru zutela, berriz ere iparraldetik sartu ziren 2.000 soldadu. Kasu honetan ere herria alde izan zuten. Baina martxoan, eta elurte latzarekin egin zuten topo. Blokeatuta geratu ziren eta Nafarroako armada errenditu egin zen. Pedro mariskala atxilotu egin zuten eta sei urtez egon zen preso. Karlos I.a zen Espainiako erregea, eta hark bere zerbitzaria izateko eskaintza egin zion,

baina erantzuna berehalakoa izan zen: *“No, porque yo no soy español”*.

Nafarroa berreskuratzeko bigarren ahaleginak porrot egin ondoren, Cisneros kardinalaren aginduz, Nafarroako gaztelu garrantzitsu guztiak suntsitu zituzten. Zergatik suntsitu zituzten gazteluak eta harresiak? Defentsarako elementu moduan ikusten zituztelako izan zen? Ez. Josebak azaldu zigunez, gazteluak eta harresiak suntsitzea zigor morala izan zen. Gazteluak nafarren identitatearen sinboloak ziren, eta hori dena bazekiten espainiarrek. Bazekiten gazteluak suntsituta Nafarroa eta nafarrak suntsituko zituztela.

1521ean egin zen Nafarroa berreskuratzeko azken ahalegina. Komuneroen altxamendua izan zen Espainian, eta hori aprobetxatu zuten. Henrike II.a zen nafarren erregea, eta 12.000 soldaduz osatutako armada lortu zuen. Nafarrek, bearnotarrek eta frantsesek osatzen zuten armadaren burua Asparrots jenerala izan zen. Oraingoan ere Nafarroako herria bere erregearen alde altxatu zen, eta 20 egunean berreskuratu zuten Nafarroa osoa. Baina Espainiak bi armada berezi presatatu zituen Nafarroa berriz ere konkistatzeko eta nafar tropek atzera egin behar izan zuten. Atzerako martxa horretan, 6.000 nafar hil ziren Noaingo Gudu entzutetsuan. Soldadu batzuek Hondarribira ihes egin zuten, eta 200 inguru izan ziren babesa Amaiurreko gazteluan topatu zutenak. 1522an, baina, tropa espainiarrek gaztelua inguratu zuten eta lauzpabost eguneko erasoaren ondoren, barruan zeudenak errenditu egin ziren. Askorentzat, Amaiurkoa da nafarren erresistentziaren azken pasartea.

Nafarroa Beherea konkistatzen ere saiatu ziren espainiarrak, baina ez zuten lortu, eta beste mende oso batez izan zen independente.

“Hau da ezkutatu zaigun historia”, poliki-poliki bistaritzen doana.



Zapatu-pasa nafarra

Ez dago ezagutu nahi dena bertatik-bertara bisitatzea bezalakorik, eta, hala, Iñaki Perurenaren Peru-harri museora egindako irteera aukera paregabea izan da Nafarroa eta bere historia ezagutu nahi genuenontzat. Gazte eta heldu, hogei laguneko koadrila abiatu ginen urriaren 20ko eguerdi partean Leitzara. Perurenaren museoa ezagutu eta hango harriak jasotzeko aukera ere izan zuten elgoibartar batek baino gehiagok. Gero Leitzako bazter ezkutuak erakutsi zizkigun hango Gazte Asanbladako kide batek, eta hangoak bukatuta herrira itzuli ginen autobusez.

Eguna ez zen hor bukatu, baina. Gero ere izan baitzen zertaz gozatua. Gaztetxeko bertso afarian ez genuen aspertzeko aukerarik izan. Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde bertsolariekin, bertsotarako aukera ezinhobea izan genuen, eta gitarra eskuan hartuta, afaltzera eseritako denak kantuan jarri gintuen Iñaki Larrañaga gazte asanbladako kideak. Kantu eta kontuek lagundu zuten giroa berotzen eta Modesto Cidek prestatutako menu nafarrak egin zituen gainerako lanak. Konpainia onaren eta jan-edan primerakoen adibide izan zen afaria.



Iñaki Perurena



Iñaki Perurena Leitzan (Nafarroa) jaio zen 1956. urtean. Gazte-gaztetatik hasi zen harri jasotzen eta gehienok horregatik ezagutzen dugun arren, mila saltsatoko perrexila da Perurena. Ogibidez harakina da, eta aktore lanetan makina bat aldiz ikusi dugu telebistan. 2009. urtean Peru-harri izeneko museoa ireki zuen Leitzako Gorritenea baserrian eta *Nafarroa arragoa* programaren baitan bertan izan ginen hogeitazazpazapasa. Iñakiren seme Xabierrek eman zizkigun hango azalpenak, aitak beste konpromiso batzuk zituela-eta, baina Iñakirekin berarekin egoteko gogoarekin gelditu ginen, eta telefonoz jardun gara harekin berbetan.

Zure museoan izan ginen hogeitazazpazapasa, eta denok ere harrিতuta geratu ginen han dagoen guztia zuk zeuk eta etxekoek egin zenutela jakin genuenean. Nik neuk banuen ilusio bat eta momentu hartan Iñasio semea eta biok aritzen ginen baserriko lanetan. Berak lagundu zidan burni soldaketan eta antzerako lanetan. Han dauden irudiak neronek eskuz landuak dira, eta guretzako balioa horrek dauka; gaizki edo ongi, baina etxetik ateratakoa da han dagoen guztia.

Eta nolatan edo zertarako egin zenuen Peru-Harri?

Ikusten nuen euskal artzainak Ameriketara joan zirenean, lanbidearen omenez, artzainaren irudi bat egiteko lanetan aritu zirela. Herri-kiroletan, bere garaian, Euskal Herrian palankariak ziren arrakasta gehien zutenak, baina gero desagertu egin ziren. Eta orduan konturatu nintzen gerta daitekeela egun batean harri-jasotzaileak ere desagertzea eta iruditu zitzaidan kasu horretan polita izango litzatekeela gure ibilbidearen oroigarri bezala zerbait egitea. Eta horrela ausartu ginen lehenengoz. Eskultura bat egitea zer zen ere ez genekiela, tresnarik gabe, planorik gabe, eskarmenturik gabe... baina irudi hori egin nahian hasi ginen zerbaitetan. Eta garai hartan, gainera, nik irakurri ere dezente egin nuen, eta orduan etorri zitzaizkidan gogora beste ideia batzuk ere eta hala hasi genuen dena. Hasierako ideia ez zen gaur egun dagoen Peru-Harri egitea, ezta gutxiago ere, baina poliki-poliki gorpuzten joan zen. Baserriak berak ere aukerak eman zizkigun; esate baterako, orain dela 5.000 urteko aizkora bat aurkitu genuen han bertan, leizezuloak ere badira baserri inguruan, eta horrek guztiak gauzatu zuen Peru-Harri delakoa. Gure harriak, eta, nolabait, gure historia ere kontatzeko modu bat.



Peru-harriko eskulturetako bat.

Izan ere, Peru-Harriren bitartez zuk harria ez ezik, herria ere erakutsi nahi diozu hara joaten den bisitariari.

Bai, noski. Beste izen bat jarri beharko banio, eta badut asmoa gainera hormigoiz egina jartzeko, Harri eta Herri deituko nioke. Harri hori munduko kultura guztiek landu dute, baina Euskal Herrian harri horrekin zer egin den ere berezitasun bat bada.

Leku askotako jendea joango da zuenera ziurrenik; harri-jasotzea ezagutzen ez duen jenderik izan duzue?

Bai. Azken batean eskolako umeak, zuena bezalako taldeak, eta turista jendea ere etortzen zaigu. Esate baterako joan den igandean Kataluniako jubilatutako talde bat izan genuen.

Eta harridura zenbaterainokoa izaten da zu harria jasotzen ikusten zaituztenean?

Beno, harridura sortzen baino gehigo ni ahalegintzen naiz ikusi dezaten gure mundua nolakoa den eta gozatu dezaten hemen dauden denboran.

Jakin badakigu, hala ere, Iñaki, ez zarela soilik harri jasotzen jardundakoa. Aktore, idazle... Zer zaren galdetuz gero, zer erantzungo zeniguke?

Dagoeneko ez dakit zer naizen ere! Behar bada niri gehien gustatzen zaidan izenburua bada harri-jasotzailearena. Baina harri-jasotzaile horren zentzua izan daiteke zabala ere. Esan

*“Harri-jasotzailea
gerrikoa lotuta harri bat
bizkarrera jasotzen duena
baino zerbait gehixeago da”*

nahi dut harri-jasotzailea gerrikoa lotuta harri bat bizkarrera jasotzen duena baino zerbait gehixeago dela. Eta beraz, hori da nire abizena. Jendeak ere horregatik ezagutzen nau, baina gero egia da horrek beste gauza batzuk egiteko ateak zabaltu dizkidala: aktore lanetan nabil nahiz aktore ez naizen, ogibidez harakina eta abeltzaina naiz, tarteka idatziren batzuk ere egin izan ditut... orduan, denetik pixka bat.

Eta tartean euskaldunon eta nafarron historiari buruz lezio ederra eman zenigun askori Bilbovisionek egin zizun elkarrizketa batean.

Hara, batzuk esaten didate elkarrizketa haren harira ‘joño, zu ere historiazalea zara’ eta ni ez naiz ‘historiazalea’. Nik momentu batean nire historia jakitzearen premia sentitu nuen. Zergatik? Jendeak galderak egiten zizkidalako, batzuetan maltzurkeriaz ere bai, eta jende horri eta nire buruari erantzun bat emateko historia jakin behararen premia sentitu nuen. Eta uste dut premia hura bederen asetu dudala. Hau da, orain badakit gutxi gorabehera nor naizen, nor ez naizen, edo nor izan ginen aurretik.

*“Perurena semeak eman zuen aitaren harri-jasotze teknika-
ren azalpena.”*



Euskara Nafarroan: atzerakada etengabearen kronika

Kike Diez de Ulzurrun (Iruñea, 1962) kazetari eta euskaltzale nafarra izan zen *Nafarroa arragoa* programako bigarren gonbidatua.

Hasteko, erromatarren garaian Nafarroa bi zatitan banatua zegoela esan zigun: *Saltus Vasconum* edo inguru menditsua, eta *Ager Vasconum* edo alde erromanizatuagoa. Euskarari dagokionez, alde handia zegoen bataren eta bestearen artean. Tafalla-Erriberritik gora euskal toponimia non-nahi topa dezakegu, baita euskara galdutako bazterretan ere: “*Lur gainean daude euskarren arrastoak*”. Hortik behera, berriz, gutxiago dira euskal toponimoak.

Erdi Aroan, Nafarroan euskarak garrantzia handia izan zuen. XVI. mendean ere euskara nagusi zen, eta XVII. mendea urrezko mendea izan zen Iruñean. XVIII. mendean ere euskarak toki handia izan zuen Nafarroan.

XIX. mendean, baina, izugarritzko aldaketa ezagutu zuen euskarak. Mende hasieran egoera on samarrea bazegoen ere, gerora asko okertu zen. Hala, Bigarren Karlistaldiaren (1872-1876) ondoren, Euskara Elkargoa sortu zen Nafarroan euskara-



ren alde lan egiteko. Arturo Campi3n (1857-1937) historialari eta euskaltzalea izan zen eragileetako bat. Campi3nek ez zuen batere argi ikusten euskararen eta euskaldunen etorkizuna, eta ezaguna egin zen haren esaera bat: “*Batzuk badoaz eta besteak ez dato3*”.

Bigarren Errepublikaren garaian ere (1931-1939) izan zen euskararen aldeko mugimendurik Nafarroan. 1931n sortu zen, adibidez, Iruñeko lehen ikastola. Baina 1936an, altxamendu frankistarekin, bertan behera geratu zen ikastolen aldeko mugimendua.

1950. urtean, berriz, Nafarroako Aldundiak helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko lehen euskaltegia sortu zuen. 1960ko hamarkadari dagokionez, 1960an lehen bertsolari-txapelketa antolatu zen Nafarroan. 1963an, ikastolak sortzeko beste ahalegin bat egin zen Iruñean, baina huts egin zuen, “*poliziak umeak baino lehenago iritsi zirelako*”. Azkenean, 1965ean sortu zen gerra ondorengo lehen ikastola Iruñean.

Nafarroan euskararen atzerantzko joerak duela 25-30 urtera arte iraun zuen. 1990etik aurrera D ereduak gorantz egin zuen, eta *Bai euskarari!* kanpainarekin Sadar futbol-zelaia betetzea lortu zen. Baina *Diario de Navarra* ‘Aski da!’ esan zuen, eta euskararen aurkako diskurtsoa zabaltzen hasi zen. Eta Nafarroako Gobernua ere euskararen kontra are nabarmenago eta zuzenago, mozorrorik gabe, egiten hasi zen.

Segidan, egungo egoera azaldu zigun Kikek. Irakaskuntzari dagokionez, D eredu beherantzko joeran hasi da; azken bizpahiru urteetan, Gobernuak ingelesaren eta euskararen artean aukeratzeko atakan jarri ditu gurasoak. Hedabideen kasuan ere egoera ez da ona: “*Nafarroko ETB ikusteko Aralarren antena jarri zuten, jendearen diru-laguntzari esker. Baina aro digitala iritsi da, eta ezin dugu ETB ikusi*”. Euskalerria Irratiaren kasuan, berriz, 25 urte bete ditu irratia eta oraindik ez du lizentziarik.

“*Nafarroan euskarari eusteko prozesuan, zer egin dugu ongi? Eta, zer gaitzki?*” Hona egin zigun gogoeta: “*Nafarroan euskarak saltzaile onak behar ditu. Nafarroan euskararen kontrako militante sutsuak daude eta euskaltzaleok buruarekin lan egin behar dugu. Nafarroako gazte askok euskararekin ezin dela gozatu uste dute; euskara Barrikadari lotuta ikusten dute. Jende askok euskaraz ikasten du eta badaki euskaraz, eta hori poztekoa da, baina non daude gazte sortzaileak?*”.

Orain arte lortu den gutzia gizartea mugitu delako izan da, Kikeren ustez, baina plangintza serio baten beharra ikusten du, “*euskara eta Nafarroa ez bereizteko*”. Nafarroaren konkistaren 500. urteurrena dela-eta, Nafarroa modan dago eta ia denok hitz egiten dugu Nafarroaz eta Nafarroaren alde, baina “*Nafarroaren aldeko jarduna euskaltasunari lotuta ikusi nahi dut; bestela ez zait interesatzen*”.

Orreagatik Belaguara

Orreagan hasi eta Belaguaraino eram gaitu Morkaiko Mendizale Elkarteak. Motxilak bizkarrean hartuta, Iratiko basoaren igurtzia somatu dugu behin eta berriz, nafar mendietara ongi-etorria eginez.



Motxila, kanpin denda eta lo-zaku artean pasa genuen lehen gaua.



Iratiko basoak jarritako oztopoak gaindituz.



‘Izan haize, izan euri’, taldeak dotore erantzun zuen. Urkulu mendiaren gailurrean.



Bigarren egunean Otsagiko kanpinean pasa genuen gaua.



Udazkena heldu da... hostoekin jolasteko tartea ere izan zuten mendizaleek.



Indarrak hartzeko, ez dago Azpegiko aterpetxean mokadutxo bat jatea bezalakorik.



Orbaitzetako arma fabrika zaharra ikustera ere iritsi ginen motxila eta guzti.

Argazkitan

Joseba Asironen Nafar konkistaz berba egin zigun.

Orreaga-Belagua mendi ibilaldia.



Peru-harria bisita.



Orreaga-Belagua mendi ibilaldia.

Bertso-kantu afari nafarra Gaztetxean.



Kike Diez de Ulzurrun euskarak Nafarroan bizi duen egoeraz jardun zen.



Asisko Urmeneta izan genuen Gartxot aurkezten.



Orreaga-Belagua mendi ibilaldia.



Pilar ikastetxetik errepiderako irteeran zulo bat dago: “Urazanditik errepide nazionalerako irteeran zulo bat dago, eta nahigabe ere, gurpila beti zulo horretan sartzen da. Aspalditik dago lurra zulatuta, eta zulo hori gero eta handiagoa da. Eskertuko genuke konponetzea. Era berean, Urazanditik jaisteko bidean asfaltoa ez dago egoera onean. Labana dago oso”.



Kalamua guraso elkarteak eskerrak eman dizkie txosnara gerturatu ziren herritarrei: “Herri Eskolako Kalamua guraso elkartetik eskerrak eman nahi dizkizuegu urriko azken zapatuan gure txosnara gerturatu zineten guztioi. Giro polita izan genuen! Mila esker!”.



Osasun Zentroaren aurreko errotondan bi lorontzi jarri dituzte: “Osasun Zentroaren aurrealdeko errotondan bi lorontzi jarri dituzte, eta horri esker, autoek ezin izango dute errotondan aparkatu. Horrelako neurriak hartu beharra ez da oso egokia, baina badirudi hori dela arauak errespetarazteko modua. Espero dugu aurrerantzean errotonda libre egotea”.

Zuen kezak, galderak edo txalok bidaltzeko:
barren@elgoibar.koizarra.com 943 744 112

ESKERTZA



JOSE IGNACIO ATORRASAGASTI GOISERU

2012ko urriaren 24an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



BLAS GARCIA GOMEZ

2012ko urriaren 26an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



‘Su txikian’, Loiolako negoziazioei buruzko antzezlan, ikusteko aukera izango da Elgoibarren hilaren 16an

Bi saio eskainiko dituzte, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz

Azkeneko urteotan euskal gatazkaren konponbiderako saioek emandakoa taularatuko du Glu Glu konpainiak Elgoibarren, hilaren 16an. Azaroaren 6an estreinatu zuten lana, Azpeitian, euskaraz, eta haren ondotik, Elgoibarren eskainiko dute, euskaraz zein gaztelaniaz. Elgoibarko Kultura Sailak antolatuta, bi saio izango dira: 20:00etan (gaztelaniaz) eta 22:15etan (euskaraz). Elgoibarko Txillarre baserrian Arnaldo Otegik eta Jesus Egigurenek Pello Rubioren konpainian izandako solasaldieta-tik hasi eta Loiolako hiru aldeko elkarriketetarainoko pasarteak antzeztuko dituzte, Osloko eta Genevako hoteletan ETako solaskideek Espainiako Gobernuko ordezkariekin izandako hartu-emantetan barrena ibiliz. Ukitu dramatikorik antzeztan dokumentala dela aurreratu dute protagonistek. 90 minutu inguruko saioa da, eta sarrerak bederatziko euroan jarri di-



tuzte salgai (Gazte txarteldunentzat sei euroan).

Imanol Murua Uria kazetariaren *Loiolako hegialak* eta Jesus Egiguren PSE-EEko presidentearen *ETA. Las claves de la paz* liburuak oinarri hartuta idatzi eta zuzendu du antzezlan Galder Perezek. Aktoreen arte-

an aurpegi ezagun asko daude: Libe Aranburu (Olatz Danobeitiaren paperean), Martxelo Rubio (Josu Jon Imazenean), Joxemari Carrere (Jesus Egigurenean), Ugaitz Alegria (Iñigo Urkullunean), Mañu Elizondo (Rodolfo Aresenean) eta Gabriel Ocina (Arnaldo Otegiarenean).

Perretxiko erakusketa antolatu du Karakate mikologia elkarteak domekarako

Karakate mikologia elkarteak VI. perretxiko erakusketa antolatu du domekarako, Elgoibarko Udaleko Kultura Sailaren laguntzarekin. Hemen inguruan batuko dituzten perretxikoak ikusi ahal izango dira erakusketan. Elkartekoek eurek batuko dituzte, eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Mikologia sailekoak izendatu eta multzokatuko dituzte. Iaz 143 perretxiko espezie ikusi eta ezagutzeko aukera izan zuten elgoibartarrek. Erakusketa goiz eta arratsaldez egongo da zabalik. Goizean, 11:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara.

Astelehen goizean, berriz, ikasleentzako jardunaldi didaktikoak eskainiko dituzte Karakate elkarteak. Iaz, 200 bat ikasle pasatu ziren Kultur Etxeko sotoan jarri zuten erakusketatik.



Abendura arteko zine emanaldien berri eman du Ongarri Zine Klubak

Azaroan eskainiko dituzten filmeen berri eman du Ongarri Zine Klubak. Lau film izango dira, denak ere *dokumental faltsuak* saila-koak. Atzo hasi zuten zikloa, Fermin Muguruza musikari eta zinemagilearen *Zuloak* lanarekin. Azaroaren 15ean, berriz, 21:30ean, *Take Shelter* filma eskainiko dute. Estatu Batuetako tornadoen ingurukoa da filma. Azaroaren 22an, bestalde, *Carmina o Revienta* filma eskainiko dute, 21:30ean. *Aida* telesaila Paco Leon antzeleak zuzendutakoa da filma eta bere ama da obrako protagonista nagusia. Azkenik, azaroaren 29an, 21:30ean, *Shame* emango dute, sexuarekiko menpekotasuna lantzen duen filma.

Agortu dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ‘Sentitu, pentsatu, ekin!’ ikuskizunerako sarrerak

Azaroaren 17an estreinatuko dute ikuskizuna, Elgoibarko Herriko Antzokian

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen gertu dute ikuskizun berria: *Sentitu, pentsatu, ekin!*. Emanaldi ugari emango dituzte Euskal Herriko hainbat herritan, baina, estreinakoa Elgoibarren egingo dute, azaroaren 17an. Bi saio eskainiko dituzte, 16:30ean eta 18:30ean. Aurten, kiroldegira barik Herriko Antzokira etorriko dira pailazoak. Elgoibarko Udaleko Gazteria Sailak antolatzen du emanaldi hau.

Emanaldirako sarrerak azaroaren 2an ja irri zituzten salgai antolatzaileek, Kutxaren bidez, baina lerro hauek idazteko unerako agortuak ziren guztiak.

Ikuskizunaren gaia

Ospakizun urtea dute pailazoek aurten-goia, izan ere, amona Josefina 100 urte beteko ditu! Pailazoak eta lagunak amonaren baserrira joango dira amona eta jada birramona ere badenarekin festa egitera. “Zaharra bezain polita”, argia eta irudimentsua da amona Josefina, eta guztiek zoriondu nahi dute. Bada norbait, ordea, festa zapuztu nahi duena, eta etengabe pailazoak oztapuzten saiatuko dena. Lortuko ote du? Ala maitasuna eta alaitasuna gailenduko ote dira azkenik? Azaroaren 17an amona Josefina zoriontzera Herriko Antzokira joateko gonbidapena egin dute pailazoek.



‘Bertso-klowen final nagusia’ ikuskizuna antolatu dute Mendaron hilaren 16rako

Bertso-klowen final nagusia ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da Mendaroko Gaztetxean, hilaren 16an, 22:15etik aurrera. Andoni Egaña, Mendaroko pailazoak eta Jokin Urain, Iñaki Gurrutxaga eta Iñigo Izagirre bertsolariek Bertsolari Txapelketa Nagusiko gorabeherak antzeztuko dituzte.

Elgoibar Urban Show, kaleko dantzen jaialdia, lau eguneko izango da



Hirugarren urtez, Elgoibar Urban Show kale-kulturaren jaialdia antolatu du Urban Culture elkarteak, abenduaren 10etik 14ra bitarterako. Sarrerak salgai daude dagoene-

ko, zortzi euroan. Elgoibarren, Iriondo Kirolak dendan eta Gozotoki Amagoian eskuratu daitezke (egunean bertan 10 euroan salduko dira lehiatilan). Era berean, Internetez ere erosi daitezke: www.danceandsmile.com.

Jaialdi horren barruan, dantza urbanoekin zerikusia duten hainbat ekintza izango dira Herriko Antzokian, denak ere gai baten ingurukoak, eta era berean, Espainiako Estatu-tuko B Boy onenek ere parte hartuko dute, Isaac Suarez buru dutela. Urban Culture elkarteak Maria Escobedoren esanetan, dantza urbanoetan puntako lau talde daude Espainian eta horietako bat da Kulbik, Isaac Suarez taldea. Isaac Suarez izango da beraz kartelburua, baina ez da bakarrik izango. BBoys Crazyhit, Snot eta Artis ere etorriko dira Elgoibarrera.

Izar handiez gain, “euskal labeldun” dantzari eta koreografoek ere izango dute lekua aurten. Hala, Marta Casas, Jaki eta Ion Mikel Landa koreografoak ekarriko dituzte abenduaren 14an. Egun horretan, gainera, Maria Escobedok berak zuzentzen duen Dance&Smile talde elgoibartarra ere igoko da taula gainera.

Break tailerrak

Abenduaren 12 eta 14rako lau break tailer praktikoa antolatu dituzte, ume zein gazteentzako. Ion Santotomas Bartzelonako B Boyak emango ditu klaseak, doan. Izena emateko: 679 237 611 edota m_danceandsmile@hotmail.com. Bestalde, abenduaren 13rako, kalejira bat ere antolatu dute Kalegoen plazan hasi eta Maalaraino.

‘Gestión de compras en la empresa’ liburua argitaratu du Ander Errastik

Bigarren liburua du hau Errastik

Ander Errasti elgoibartarrak bigarren liburu teknikoa argitaratu du: *Gestión de compras en la empresa*. Izenburuak berak dioen moduan, enpresa kudeaketan berezibiko garrantzia daukan gaia lantzen du liburuan, erosketaren industrialarena, alegia. Enpresa zuzendariei eta enpresetako erosketaren sailletako arduradunei zuzendutako lana da, baina aldi berean, ingeniari-tzakako graduondokoak egiten diharduten ikasleentzako ere lagungarria izan daiteke, erosketaren kudeaketaren gaineko kasuak ere aipatzen direlako. Izan ere, 50 enpresako kasu errealek berri eman du Errastik. Anayaren Piramide argitaletxeak argitaratu du liburu hau, Ekonomia eta Enpresa bilduman.

Ander Errasti elgoibartarra da jaiotzez, baina Bergaran bizi da egun. Natra taldeko zuzendaritzakoa eta Tecnun-Nafarroako Unibertsitateko irakasle elkartua da,



eta Fagorren, Arrasateko Eskola Politeknikoan eta Ulma Handlingen lan egindakoa, besteak beste. Honako hau bere bigarren liburua da. Aurrez, *Logística de almacenaje: diseño y gestión de almacenes y plataformas logísticas* liburua argitaratu zuen, Eusko Jaurlaritzaren eskutik.

Iban Barrenetxearen ‘El cuento del carpintero’ liburua saritu dute Euskadi Literatur sarietan



Iban Barrenetxea, artxiboko argazkian.

Bigarren urtez jarraian irabazi du Iban Barrenetxeak Euskadi Literatura saria: laz, ilustrazio arloko saria jaso zuen, *Bombastica Naturalis* lanagatik. 2012ko Euskadi Sarietan, berriz, gaztelaniazko haur eta gazte literaturakoa jasoko du, *El cuento del carpintero* lanarengatik (A Buen Paso argitaletxearen eskutik argitaratu du: www.abuenpaso.com). Euskadi Literatur saria ez da, hala ere, *El cuento del carpintero* liburuak jaso duen lehenengo aipamena. Izan ere, iazko udaberrian Libro Kirico 2011 saria jaso zuen.

Iban Barrenetxeak eginiko lau liburu argitaratu dituzte orain arte. Ilustrazioak egin ditu berak lauretan eta bi liburutan, azkenekoan barne, testuak ere idatzi ditu. Barrenetxeak jakinarazi du beste bi liburu ere prest dituela eta argitaratu zain dagoela.

Praileaitz leizeari buruzko hainbat ekintza antolatu ditu Okil Beltzak taldeak

Praileaitz haitzuloaren (Deba) egoera ezagutarazteko asmoz hitzaldi bat eta ikusentzunezko bat antolatu ditu Okil Beltzak taldeak, besteak beste. Azaroaren 13an, esaterako, labar arteari buruzko dokumentala eskainiko dute Kultur Etxean, 19:00etan, eta ondoren, Praileaitz haitzuloaren egoera legala zein den azalduko dute. Hilaren 15ean, berriz, Xabier Peñalver eta Sonia San Jose arkeologoek hitzaldia eskainiko dute, 19:00etan, Kultur Etxean. Azkenik, hilaren 18rako, Praileaitz haitzulora bertara eta Ermittia kobazulora irteera antolatu dute. 10:00etan abiatuko dira Maalatik.

Antton Urreisti margolariaren erakusketa, hilaren 16tik aurrera

Antton Urreisti margolariak erakusketa zabalduko du hilaren 16an Elgoibarko kultur Etxeko erakusketa gelan. Abenduaren 2ra arte egongo da zabalik, astelehenetik zapatara 18:30etik 20:30era. Eskarmentu handiko margolaria da Urreisti, eta haren lana sarri nabarmendu dute hango eta hemengo epaimahaiek. Azkeneko bost urteotan, esate baterako, 57 sari pilatu ditu. Ume-umetatik da margolari Urreisti, eta ibilbide oparoa izan du urte hauetan guztietan. Errealismotik inpresionismo gordinenera salto egin zuen margolari autodidakta honek, eta orain, beste jauzi bat egin nahi du inpresionistatik abstrakziorantz. Elgoibarko erakusketan tamaina ezberdinetako 28 bat oleo jarriko ditu ikusgai.



Arg.: Jabi Leon

Erabaki dira 10 bai txapelketako lau t'erdiko buruz buruko finalak

Arribik eta Bastidak jantzi dute txapela

Eguenean jokatu ziren 10 bai txapelketako lau t'erdiko finalak Kalegoen plazako frontoian. Lehenengo Mailako partidan, Arribik erraz hartu zuen mendean Portu. Lehenengo partidan 10-6 gailendu zitzaion, eta bigarren 10-2. Bigarren mailako finalean, berriz, Bastida eta Gerriren arteko finalean, Bastida nagusitu zen. Lehenengo partidan 10-2 irabazi zuen Bastidak, bigarren partidan 6-10, eta hirugarrenean 10-6.



Behobia-Donostia lasterketarako autobusa iragarritakoa baino orduerdi aurretik irtengo da

Udal Kirol Patronatuak jakinarazi du Behobia-Donostia herri lasterketara joateko lasterketara joateko autobusaren ordutegia aurreratu egin dutela. 8:30ean barik 8:00etan irtengo da autobusa King Kongeko autobus geltokitik. Autobusean joateko izena eman beharra zegoen, eta atzo amaitu zen horretarako epea. Aurten, 25.000 korrikalari inguruk eman dute izena. Tartean, Elgoibarko 82 lagunek eta Mendaroko 22k eman dute izena.

Mendi emanaldi zikloa antolatu du Morkaikok

Aurreko urteetako arrakasta ikusita, udazkeneko mendi emanaldi zikloa antolatu du Morkaikok. Aurten, baina, martitzenetan izango dira zikloak, 21:30ean, Musika Eskolako auditorioan.

Hilaren 13an izango da lehenengo emanaldia. Iñigo Lariz elgoibartarrak. *Mendi eskia: txapelketetatik haratago* izenburua jarri dio hitzaldiari, eta mendi eskian hasi zenetik gaur arte izan dituen bizipenen berri emango du. Azaroaren 20an, berriz, Alberto Agirreazaldegiren txanda izango da. *Kungsleden: Laponia zeharkatzen* eskiz izenburuko hitzaldia eskaiko du Agirreazaldegik, aurtengo

martxoan bederatzi euskaldunek egindako zeharkaldi baten ingurukoa. Norvegiako iparraldean eta Suediako mugan egindako zeharkaldia da, Abisko parkean hasi eta Nikkaluoktara artekoa. Hilaren 27an, Imanol Larrañaga, Sylvia Sotorriok eta Mendikolore emakumeak taldekoek Chamonixetik Zermattera egindako bidaia baten ingurukoak kontatuko dituzte, eta abenduaren 4an, Josu Bereziartua mendizaleak *Broad Peak 2010: hastapenera itzulera* hitzaldia emango du. Azkenik, abenduaren 11n, Khan Tengri mendikatearen gainean arituko da Iñaki Santiso.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Alaves B 2
 Zumaiako 1 – Elgoibar 1 (Neskak)
 Ordizia 5 – Elgoibar 1 (Erregionala)
 Elgoibar 2 – Ikasberri K.E. 1 (Jubenilak)
 Ordizia 3 – Elgoibar 1 (Kadete A)
 Elgoibar 7 – Aurrera K.E. 1 (Kadete B)
 Zumaiako 6 – Elgoibar 0 (Ohorezko infantilak)
 Elgoibar 0 – Zarautz 2 (Infantil Txiki)
 Zumaiako 4 – Elgoibar 4 (Alebina)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Aurrera Saiaz 22 – Lagunak 17 (2. mail. nagusiak)
 Tartalotxe 22 – Lagunak 4 (2. mail. nagusiak)
Palaz
 Batzokiko 25 – Lagunak 9 (1. mailako nagusiak)
 Batzokiko 25 – Lagunak 21 (2. mailako nagusiak)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 2 – Sala Quinto 1

ESKUBALOIA

Urnieta 35-Gabaz 31 (Sen. mut.)
 Alcorta Forging. 27 – BM Corrales 26 (Sen. mut.)
 Tecnifuelle 37 – Aloña Mendi 11 (Sen. nes)
 Gabaz 31 – Ordizia 26 (Sen. mut.)
 Irungo gaztiak 20 – Beristain 26 (Jub. mut.)
 Aloña Mendi KE 18 – Lauko 29 (Jub. nsk.)
 Aloña Mendi KE 18-Astigarraga 24 (Kad. nes.)
 Pneumax 16-Ereintza 31 (Kad. mut.)
 Ikus 27-Eharialedea 6 (Kad. nesk.)
 Cometel 12-Pulpo 13 (Inf. nesk.)
 Murgil eraikuntzak 43-Usurbil A 1 (Inf. nesk.)
 Txarriduna 32-Ormaiztegi 20 (Kad. mut.)
 Aterpe 5-Zarautz KE 29 (Inf. nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 10

10:00 Elgoibar – Lagun Onak (Ohorezko infantilak)
 12:00 Elgoibar – Anaitasuna (Kadete A)
 16:00 Elgoibar – Antigua Luberrri (Regionala)
 18:00 Elgoibar – Zestoa (Jubenilak)

Domakia, 11

12:30 Elgoibar – Antigua Berri (Neskak)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 10

10:15 Cometel – Murgil (Infantilak neskak)
 11:30 Ikus – Urnieta (Kd. neskak)
 16:00 Astigarraga – Errotaberri (Kd. neskak)
 17:30 Lauko – Errotaberri (Jub. neskak)
 19:00 Beristain – Leizaran (Jun. mutilak)

Domakia, 11

9:15 Txarriduna – Eibar Eskubaloia (Kad. mut.)

LANA

ESKAERA

- Mutila eskaintzen da lanerako: Lorezaintza, desbrozadora, polinizazio edo tasazio lanak egingo lituzke. ☎ **607 885 609**
- Emakume nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanak ere egingo lituzke. ☎ **605 720 298**
- Emakumea lan bila: nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **681 065 683**
- Emakumea lan bila: nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **678 346 279**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Etxean zein ospitalean. ☎ **645 557 141**
- Mutila nagusiak zaintzeko prest. Etxean, ospitalean zein baserrian. ☎ **688 812 845**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Ordua, 8 euro. ☎ **638 884 104**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Baita garbiketak egin edota sukaldean lan egiteko. ☎ **943 176 256**
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko. Umeak zaintzeko zein beste edozein lan egiteko prest. ☎ **649 582 608**
- Neska eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Orduka nahiz interna. ☎ **686 052 084**
- Mendi, baso zein baserri inguruak garbitzeko sasoiko mutila eskaintzen da. ☎ **699 690 965**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **636 862 251**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **669 311 385**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **649 044 223**
- Mutila eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **692 332 871 / 943 257 815**

- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **690 177 259**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Adin eta maila guztiak. Azterketa ofizialearako prestaketa. Talde txikiak. ☎ **680 858 550 / 943 741 594**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. ☎ **660 551 781**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **618 050 902**
- Gizon arduratsua, lanerako prest. Nagusiak zaintzen eta sukaldari laguntzaile lanetan esperientzia. ☎ **631 053 415**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Ospitalean ere bai. Umeak ere zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin ere bai. ☎ **699 609 190**
- Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Gidabaimena eta autoa ditut. ☎ **662 589 611 / 943 250 296**

ESKAITZA

- Sukaldari laguntzailea behar da Elgoibarko taberna batean lan egiteko. ☎ **687 051 789**

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **608 474 923**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Logela bakarrekoa edo gehienez, bikoa. ☎ **695 743 405**
- Logela bakarrekoea alokatzen dut Errosario kalean. ☎ **630 374 124 (Naiara)**
- Etxea alokairuan Elgoibarren. Bi logela, sukaldea, despentsa, egongela. Jantzita. Igogailuarekin. Erdigunean, nahiko berria. ☎ **655 711 334**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **680 808 125**
- Babes ofizialeko pisua salgai, Arregitorren kalean. 57m². Logela bat, sukaldea, egongela, bainugela, ganbara. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko prest. ☎ **687 281 719**

- Apartamentu berritua alokatzen dut Altzolan. ☎ **656 750 160**

GARAJEAK

- Marradun garajea alokatzen dut Santa Ana kalean. ☎ **652 716 724**
- Garaje itxia alokairuan, Jausoro plazan. Hilean 50 euro. ☎ **633 633 990**

IBILGAILUAK

- Renault Traffic furgoneta salgai. 2006koa. Altxatzen den sabaia, bi ohe eta beheko ohea, berogailua, aurrealdeko toldoa... Egoera onean. ☎ **652 715 911**

BESTELAKOAK

- La Unión Caza y Pesca elkarteko bazkide izateko akzioa salgai. ☎ **605 775 325**

KINTOAK

- 1974an jaiotako eta Ikastolan ibili zirenek afaria egingo dute azaroaren 24an, Txarriduna jatetxean. Interesatuak 50 euro sartu beharko dute Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 23 0071033857. Izena emateko azken eguna, azaroak 16. ☎ **677 260 878 (Iñigo) / 678 674 142 (Anjel)**
- 67koen kinto bazkaria Sigma jatetxean, azaroaren 17an. Luntxa, 13:00etan, Viento Sur gastrotekan. Interesatuak 55 euro sartu beharko dituzte, azaroaren 14rako, Euskadiko Kutxan: 3035 0007 26 0071125370. ☎ **665 703 173 / 676 533 474**

LAN DEIALDIA

Erreminta makinaren sektoreko Elgoibarko enpresa batek CNC tornuan eta artezteko makinan ezagutza duen pertsona bat behar du lanerako. Interesatuok Elgoibarko 220 posta kutxatilara bidali behar dituzue curriculumak.

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENen edo www.elgoiBARREN.net
 webgunean

BARREN
 astekarian
 943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.com




**ERRETRATU ZAHARRAK
 BEHAR DITUGU!**

BARRENen argitaratzeko erretratu zaharrak baldin badituzu, eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea. Nafarroa Plaza 2, behean. 943 744 112 (Ainhoa)



• Zorionak, **Lore**, zure bederatzigarren urtebetetzearan. Ondo-ondo pasa, eta jarraitu beti bezain jator. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Unai**, urriaren 30ean urtebete egin zenuelako. Aita-txo, amatxo eta Asierraren partez. Muxu handi bat.



Zorionak, **maitial** Konturatu gabe 4 urte potolo egin dituzu gaur. Ederki ospatuko dugu! Etxeko guztion partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Sara**, 3 urte egin dituzulako, txapelduna! Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Olhanel** Dagoeneko 4 urte potolo egin dituzu! Muxu bat etxekoan partetik.



• Zorionak, **Nahia**, zure laugarren urtebetetzearan. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Anel** Maite zaitugun guztion partez.



• Zorionak, **Unai**, igandean 8 urte bete zenituelako. Familiakoan eta bereziki, Irene eta Claudiaren partez.



• Zorionak, **printzesa**, 5 urte egin dituzulako. Muxu bat Duna eta Manexen partez.



Zorionak, **Elena**, asteazkenean 5 urte egin zenituelako. Segi horren jator. Muxu asko etxekoan eta bereziki, Mariaren partez.



• Zorionak, **Elene**, aurreko zapatuan 2 urtebete zenituelako. Aita-txo, amatxo, Irati eta familiakoan partez. Muxu handi bat.



• Zorionak, **printzesa** Bi muxu potolo etxekoan, eta bereziki, Markelen partez.



• Zorionak, **Ane**, etxeko printzesa, azaroaren 6an 5 urte egin zenituelako. Gurasoen eta ahizparen partez.



• Zorionak, **Naiara**, igandean 6 urte egingo dituzulako. Oso ondo pasatuko dugu! Familiakoan eta bereziki, gurasoen partez.



• Zorionak, **Harea**, asteazkenean 9 urte beteko dituzulako. Muxu asko aitittaren partez.



• Zorionak, **Urkol** Kaiet jada etxean dago. Asko maite zaituztegu! Familiakoak.



• Zorionak, **Aritz**, 14 urte egin dituzulako. Eta baita zuri ere, **Nagore**. Etxeko denon partez.




• Zorionak, **Intza eta Eki**, atzo eta hilaren 29an urteak bete dituzuelako. Muxu asko amama eta aitittaren partez.



• Besarkada handi bat etxeko mutil handiari! Jarraitu irribarre horrekin!



• Zorionak, gure etxeko **mendizaleei**, zuen zazpigarren eta hamargarren urtebetetzearan. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Danel eta Junel** Mila muxu etxekoan partez.



• Zorionak, Ixaso eta Iñaki! Oso ondo pasatu genuen zuen ezkontzan. Gozatu bidaiaz. Elene, Irati eta familiakoan partez.



• Zorionak, **bikote**, azaroaren 1ean 6 urte egin zenituztelako. Familiakoan eta Estherren partez.



AGURREN ATALEKO PREZIOAK:
 Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€.
 Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
 Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€.
 Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

10 zapatua

Hitzaldia

10:00 'Amodio hilgarriak'

Loredi Salegik eskainiko du, Kultur Etxean.

Ibai lagun

10:00 Deba ibaiaren garbiketa

Debegesak antolatuta, Deba ibaia garbituko dute. Kalegoen plazan batuko dira.

Erakusketa

18:30 'XXI. mendeko pasiegoak'

Iñaki Izquierdoren argazki erakusketa. Kultur Etxean.

11 domeka

Mikologia

10:00 Perretxiko erakusketa

Karakate Mikologia elkarteak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

Solasaldia

16:00 Zukgua prozesu eratzailera

Hirugarren solasaldia. Ziklo politikoaren gaia landuko dute, taldeka. Gazte guztiak gonbidatu dituzte. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

16 barixakua

Antzerkia

20:00 eta 22:15 'Su txikian'

Glu Glu antzerki taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian.

ZINEA

'Mátalos suavemente'

9, barixakua: 22:15
10, zapatua: 19:00/22:15
11, domeka: 19:00
12, astelehena: 21:30



'Freddy igeldegi'

11, domeka: 16:30



'Take Shelter'

15, eguena: 21:30



OKINDEGIA
11 domeka: FOTERO

BOTIKA ORDUTEGIAK
9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK


Egunez 9:00 - 22:00	Gauetz 22:00 - 9:00	Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142
9 Fernandez	Barrenetxea	Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638
10 Yudego	Yudego	
11 Yudego	Yudego	
12 Zabaleta	Etxeberria	
13 Barrenetxea	Barrenetxea	
14 Ibañez	Yudego	
15 Garitaonandia	Garitaonandia	Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384
16 Etxeberria	Etxeberria	



Non dago Ludo?

Jakín nahi izanez gero,
azaroaren 14an
izango dugu Ludoren
bidaiaren berri.

Hilabete honetako sukalde
txokoa: **KROKETAK.**
Eguenero,
17:00etatik aurrera.



AZAROAK 16 eta 17an, merkatu plazan.
El 16 y 17 de Noviembre , en la plaza del mercado.



**AZAROAK 16 , ARRATSALDEKO 18:30 ETAN
TXOKOLATADA. (MERKATU PLAZAN).**

**AZAROAK 17, GOIZEKO 11:30ETATIK AURRERA,
ANIMAZIOA (MARITXU, MARGARI eta MANOLI) PAILAZOEN ESKUTIK.
ETA 2 PERTSONENTZAT AFARIA ZOZKETATUKO DA !!!!**

**ANIMA ZAITEZTE
RA RA RA MERKATU PLAZARA!!!!**



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

